

Bizi txarra

Derrigorrezko amateurrismoaz aritu nintzen aurrekoan txoko honetan, eta berriz ere gaiari heldu nahiko nioke, ikus-entzunezko gerrillarion artean erreferente izan den web telesail bat *Ekografiak* hauetara ekarritz: *Malviviendo*.

Malviviendo David Sainz kanariarrak sortutako proiektu batx izan zen. Sevillara joan zen

ikus-entzunezkoetan trebatzera, eta han jaio zen, 2008an, sekula Espainiar Estatuan ikustaldi gehien izan dituen web telesaila. *Malviviendo* auzo marjinal batean gertatzen den umore kutsuko telesaila dugu. Droga eta estutasun artean bizi den gazte kuadrilla baten gorabeherak kontatzen dizkigu, eta, nahiz eta oso baliabide urriekin ekoiztu, emaitza erabat profesionala da. Bai tekni-

koldi, eta baita eduki aldetik ere (intraok ikuste hutsa merezi du).

Garai hartan, ez zegoen sare sozialik, eta web telesaila ahoz aho zabaldu zela esan dezakegu. Fenomeno ikaragarria izan zen, eta, halako batean, pentsarazi zigun iraultza etorriko zela beraien ikus-entzunezkoetara. Ez zen halakorik gertatu, ordea. Izaera handiko lehen atal korrosibo batzuen ostean, Nokdiaren mezenas-

go proiektu bat sartu zen tartean. Ulertzekoa den moduan, Sainz eta konpainiak gustura hartu zuten dirua, *Malviviendo* horretarako sortu baitzen. Ez dakit norena izan zen errua, baina egun hartatik, nabarmen behera egin zuen. Hasteratik telesaila ikusten zuten askok lantaldearen aurka egin zuten orduan. *Tradore* eta *saldu* izan ziren entzun zituzten hitzik ederrenak.

Malviviendo amaitu zen, 30 atal elkoiztera iritsi zirenean, eta zorakeria hura martxan jarri zuten askok industrian lekutxo bat egin zuten. Haien artean ezagunen egin dena David Sainz bera izan da. Bere kabuz, *Malviv-*

iendo itxurako proiektuak garatzen jarraitu du bere denbora librean, baina bere eguneroa TVEren atal digitalaren inguruan ematen du gaur egun. Beste batzuen artean, arrakasta dezentz izan zuten *Mambo* web telesailaren zuzendari eta protagonista izan zen, eta kritika oso onak jaso zituen *Parking Karaoke* saioa gidatu zuen.

David Sainz kontuan hartzeko iruditzen zait, eta adibide on bat, bazerretik etorritako industrian leku bat egitea posible dela erakusteko. Nahiz eta batek baino gehiagok saldua zarela esan. Zer zaila den bizi txarra uztea.



EKOGRAFIAK
Mikel Alvarez

Asteazkeneko finalarekin amaituko da Egunean Behinen denboraldia

Laugarren denboraldian 90.000 erabiltzaile izan ditu aplikazioak • Irailean itzuliko da jokoa

Lander Muñagorri Garmendia

Egunean Behin jokoak arrakasta biltzen jarraitzen du, eta astero 60.000 jokalaririk ingururik erantzuten dituzte tribial gisako galderei. Igandean amaituko da denboraldia, eta datorren asteazkenean, 21.30ean, finala egingo dute online. Baina ez da izango orain arte bezalako finala, denboraldiko emaitza onenak lortu dituzten jokalarien artekoa; nahiz duen orok parte hartu ahal izango du. Finalarekin amaituko da, beraz, Egunean Behinen laugarren denboraldia.

Internetezko proiektuak garatzen dituen Codesyntax enpresak sortu zuen jokoa, 2019an, eta talde horretako lidere da Josu Azpillaga. Gustura azaldu da laugarren denboraldiak izan duen harrerarekin: «Nahiko zailantza genezukan, aurreko denboraldia oso arrakastatsua izan zelako, eta zaila delako eustea». Dienez, sakelako telefonoen aplikazioek arrakasta lortzen dutenean maiz hala gertatzen baita: apurka erabiltzaile kopurua jaisten hasten da. Hori ez gertatzeko eta jokalariek eusteko, urte guztian hainbat denboraldi antolatuta dituzte, eta hein batean helburu hori bete dela dio. Hirugarren denboraldian, unerenean batean 100.000 jokalaririk ingururik erantzun zirenen aplikazioeko galderei, eta, laugarren honetan, 90.000 erabiltzailearen muga gainditu dute. «Egia



Eduarne Azkarate aktoreak aurkeztu ditu Egunean Behinen zuzeneko emanaldiak. BERRIA

da euskarazko aplikazio batekin zaila dela 100.000 erabiltzailetik gora izatea». Ikusitakoak ikusita, beraz, balorazio positiboa egin du.

Aplikazioaren garatzaileak, oro har, oso gustura daude Egunean Behin ikusitakoak ikusita, beraz, balorazio positiboa egin du. Aplikazioaren garatzaileak, oro har, oso gustura daude Egunean Behin ikusitakoak ikusita, beraz, balorazio positiboa egin du. Aplikazioaren garatzaileak, oro har, oso gustura daude Egunean Behin ikusitakoak ikusita, beraz, balorazio positiboa egin du.

saria eurek ematen dute. Denboraldi berria abiatzerako babesle guztiak lotuta zeuzkatala azaldu du Azpillagak.

Zuzeneko emanaldiak
Denboraldiz denboraldi berritasunak txertatu dituzte jokoa, eta, azken honetan, lau asteazkenean zuzeneko saioak egin dituzte. Eduarne Azkaratek gidatuta eta gonbidatu baten laguntzarekin, hala nahi zuten orok eguneroko partidak gain beste bat jokatzeko aukera izan du, Zuzeneko saioetako gonbidatuak hauek izan dira: Aitziber Garmendia ak-

torea, Antton Telleria aurkezlea, Jone Uribe bertsolaria eta Dylan Inglis ingeles euskaldun berria. Zuzeneko horietako bakoitzean, 3.000 pertsona inguru batu dira. «Teknikoki erronka bat izan da», eta datorren asteazkenean online final irekia egin ahal izateko teknologia garatu ahal izan dute horretara.

Asteazkeneko zuzeneko emanaldiaren ostean etenaldia egingo du jokoa, baina irailean bueltan izango direla aurreratu du Azpillagak. Bosgarren denboraldiak ere berritasunak izango ditu, baina oraindik lotu gabe daude.

Hauteskunde debatea egingo da gaur ETB1en

DONOSTIA • Hauteskunde kanpaina batean, alderdi nagusietako hautagaien arteko eztabaida egingo dute gaur ETB1en, 22:00etan. Bertan izango dira Iñigo Urkullu EAJko lehendakargia, Maddalen Iriarte EH Bildukoak, Miren Gorrotxategi Eizkarrekin Podemosekoak, Idoia Mendia PSE-EEkoak, Laura Garrido PP eta Ciudadanosen koalizioko legebiltzarrerako hauta-gaia eta Jose Ramon Becerra Ekuoko zerrendaburua. Xabier Usabiaga kazetariak zuzenduko du debatea.

ETB2k ere izango du bere eztabaida propioa, eta datorren asteartean egingo dute, lehendakari guztien artean, 22:00etan. Kasu honetan, Xabier Garcia Ramsedenekek bideratuko du. Irratiei dagokionez, Euskadi Irratiak egun horretan egingo du hauteskundeetako debatea, *Faktoria* saioan, baita Radio Vitoria *Radio Vitoria Gaur*-ek ere, eta Radio Euskadiko *Boulevard*-ek, uztailaren 9an.

Bizikleta iragarki bat debekatu dute Frantzian

PARIS • Auto bateko txasisaren islan kutsadura irudiak eta auto ilarrak ageri dira Vanmoof bizikletak konpainiaren iragarki berritan. Ondoren, esaldi bat idatzita: «Bada garaia etorkizunera igotzeko». Auto industriari kalte egiten diolako eta beldurra zabal-tzen dielako, Frantziako iragar-kiaren behatokiak debekatu egin du publizitatea emititzea.